Kareaga Goikoa 52, 48970 Basauri 944666342 www.basauri.eus berrikuntza@basauri.eus

Dekretozk./Nº de Decreto:
3403/2024

| | |
|---|---|
| **Espediente Zk. /** Nº Expediente: | **EYRDOC/2024/319** |
| **Unitate arduraduna** / Unidad responsable: | BERRIKUNTZA ETA GOBERNU IREKIA<br>INNOVACION Y GOBIERNO ABIERTO |
| **Prozedura** / Procedimiento: | Dokumentuak egitea eta bidaltzea<br>Elaboración y remisión de documentos |
| **Interesatua** / P. Interesada: | |
| **Ordezkaria** / Representante: | |

**GAIA:** AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK 2025 PROZESUAREN GIDALERROAK

Ikusi da INNOVACION Y GOBIERNO ABIERTO (a)ren Ataleko buruak emandako ebazpen-proposamena, erreferentziako espedienteari buruzkoa, eta honela dio, hitzez hitz:

Gai hau Alkatetzaren eskumenekoa da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluaren arabera, zure irizpenerako, honako hau

**PROPOSATZEN DUT**

Basauriko Udalak Aurrekontu Parte-hartzaileak 2025 prozesua abiarazi du, zeinaren xedea baita herritarrek proiektuak proposatu eta bozkatzea, proiektu horiek, gero, 2025ko ekitaldiko udal aurrekontuetan txertatzeko.

Parte-hartze prozesu horrek bilatzen du basauriarren benetako interes eta beharrizanak ezagutzea eta udal kudeaketan parte hartuko duten herritar aktiboak sortzea.
Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 79.1 artikuluak horrelako prozesuak deitzeko aukera arautzen du: «Euskal toki-erakundeek kontsulta edo deliberazio publikoko prozesuak abiarazi ahal izango dituzte, erakundearen ezaugarriei eta

ASUNTO: PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS 2025 DIRECTRICES DEL PROCESO

Vista la propuesta de resolución emitida por el/la Jefe/a del Departamento de INNOVACION Y GOBIERNO ABIERTO, recaída en el expediente de referencia, que copiada dice:

Siendo el conocimiento del presente asunto competencia de la Alcaldía conforme a lo dispuesto en el art. 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases de Régimen Local, elevo a su consideración, la siguiente

**PROPUESTA DE RESOLUCIÓN:**

El ayuntamiento de Basauri pone en marcha el proceso de Presupuestos Participativos 2025. El objeto de este proceso participativo es que la ciudadanía proponga y vote proyectos que serían incorporados a los presupuestos municipales para el ejercicio 2025.
Este proceso participativo pretende conocer los intereses y necesidades reales de las y los basauritarras, y generar una ciudadanía activa e implicada en los asuntos municipales.
La Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en su artículo 79 apartado 1, regula la posibilidad de convocatoria de este tipo de procesos: “Las entidades locales vascas llevarán a cabo procesos de consulta o deliberación pública, en el modo que mejor se

errealitateari ondoen moldatzen zaien eran eta egokien irizten dieten gaiei buruz, gastuaren inguruko erabaki edo alderdi puntual batzuk definitze aldera erakundea hurrengo urteko aurrekontuak prestatzen hasi behar denean». Artikulu beraren 4. atalak Udala ahalordetzen du, parte-hartze prozedura zehatza ezartzeko: «Tokiko araugintzarako ahalaren bidez edo udal-erabakiaren bidez ezarriko dira partaidetzako prozesu mota horren forma, prozedura eta edukia».

Hori guztia aintzat hartuta, **2025rako aurrekontu parte-hartzaileen honako prozesu hau proposatzen da**:

**LEHENENGOA.**- Udalak 400.000 gordeko ditu 2025ko aurrekontuan, herritarrek prozesu parte-hartzailean hautatutako proiektuetarako.

**BIGARRENA.**- Prozesuak honako fase hauek izango ditu:

1. FASEA: herritarrek proposamenak aurkeztea.
2. FASEA: proposamenak aztertzea eta lehenestea. Udal arloek aurkeztu diren proposamenak aztertu, eta herritarrek bozkatuko dituzten proposamenak lehenetsiko dituzte.
3. FASEA: herritarrek bozkatu egingo dute, aurrekontuan jasoko diren proposamenak hautatzeko.
4. FASEA: hautatutako proposamenak 2025ko ekitaldiko aurrekontuan jasoko dira. Udalak prozesuaren emaitzak argitaratuko ditu, eta, aldiro, proiektuen bilakaeraren berri ere emango du.

**HIRUGARRENA.**.- Prozesua koordinatzeko, barne lan-talde bat sortu da partaideak honako hauek izanik: alkatea; Gobernantza publikoaren arloko ordezkaria; eta Hirigintzan eta/edo Gizarte Zerbitzuetan eta/edo Ogasunean eta/edo Kontratazioan eskumenak dituzten arduradun politikoak, alkateak izendatzen dituenak; Parte-hartzearen arduradun teknikoa; eta idazkaritza teknikoko langileak. Barneko lan-talde horren zeregin dira, besteak beste, jarraipena egitea, entregatzekoak baliozkotzea eta prozesua koordinatzea, arlo guztien interesei

adecue a sus características y realidad y respecto a la cuestión o cuestiones que estimen más oportunas, para definir decisiones o aspectos puntuales de gasto en el momento de iniciar la preparación de los presupuestos de la entidad para el ejercicio siguiente". Y el mismo artículo, en su apartado 4, otorga al ayuntamiento la capacidad de establecer el procedimiento concreto de participación: "Por medio de la potestad normativa local o mediante acuerdo municipal se establecerá la forma, procedimiento y contenido de esta modalidad de participación."

Teniendo en cuenta todo lo anterior **se propone el siguiente proceso de Presupuestos Participativos 2025:**

**PRIMERO.**- El ayuntamiento reserva 400.000 euros de los presupuestos del 2025 para la incorporación de los proyectos seleccionados por la ciudadanía en este proceso participativo.

**SEGUNDO.**- El proceso constará de las siguientes fases:

FASE 1: Presentación de propuestas de la ciudadanía.

FASE 2: Analizar y Priorizar. Las distintas áreas del Ayuntamiento analizan y priorizan las propuestas que serían sometidas a votación.

FASE 3: La ciudadanía vota para seleccionar las propuestas que serán incorporadas al presupuesto.

FASE 4: Las propuestas seleccionadas se incorporan al presupuesto del ejercicio 2025 para su ejecución. El Ayuntamiento publica el resultado del proceso y, periódicamente, el estado de avance en la ejecución de los proyectos.

**TERCERO.**- Para coordinar el proceso se crea un grupo de trabajo interno compuesto por el Alcalde; la Delegada del área de Gobernanza pública; y los responsables políticos que designe el Alcalde con competencias en Urbanismo y/o Servicios Técnicos y/o en Hacienda y/o en Contratación; el responsable técnico de Participación; y personal de quién ejerza la secretaría técnica. Las labores del grupo de trabajo interno son, entre otras, el seguimiento, la validación de los entregables y la coordinación

Kareaga Goikoa 52, 48970 Basauri 944666342 www.basauri.eus berrikuntza@basauri.eus

koherentzia emanda.

**LAUGARRENA**.- Prozesuan parte hartu ahalko dute Basaurin erroldatutako 16 urtetik gorako guztiek.

**BOSGARRENA**.- Parte hartzeko bideak.

a) Ontziak jarriko dira, herritarrek inprimakiak bertan utzi ahal izateko. Honako leku hauetan egongo dira:

   a. Udaletxeko eta San Migeleko Herritarrentzako Arreta Bulegoa (HAZ). Ez da beharrezkoa izango aurretiazko hitzordua eskatzea, prozesuan parte hartzeko.
   b. kultur etxeak (Pozokoetxe, Ibaigane, San Migel), Basozelai Gizarte Etxea, Arizko Dorretxea, Kareagako Auzo Etxea eta Taberna Nagusia.
   c. Artunduagako kiroldegia.
   d. Udal Euskaltegia.
   e. Marienea.

b) Parte hartzeko postontziak ere jarriko dira, herritarrek bertan utz ditzaten betetako inprimakiak. Metro-sarreren ondoan (udaletxea, Los Burros, Solobarria plaza eta Valentzia kalea) eta San Migeleko Hernán Cortés plazan egongo dira.

c) Informazio-karpa ipiniko dira, bertan parte hartuko ahal izango da ere, Arizgoitin, Bidebietan, Solobarria plazan, Hernan Cortes plazan eta Arizko elizaren plazan.

del proceso dando coherencia a los intereses de las distintas Áreas.

**CUARTO**.- Podrán participar en el proceso todas las personas empadronadas en Basauri y mayores de 16 años.

**QUINTO**.- Vías de participación.

a) Se colocarán urnas donde la ciudadanía podrá introducir los formularios cumplimentados; las urnas se ubicarán en:

   a. Los SAC del Ayuntamiento y de San Miguel. No será necesario solicitar cita previa para participar en el proceso.
   b. En las casas de cultura de Casa de Cultura Pozokoetxe, Casa de Cultura Ibaigane, Casa de Cultura San Miguel, Centro Cívico Basozelai, Torre de Ariz, Centro Cívico Kareaga, Taberna Mayor.
   c. Polideportivo de Artunduaga.
   d. Euskaltegi municipal.
   e. Marienea.

b) Se colocarán buzones de participación ciudadana donde la ciudadanía podrá introducir los formularios cumplimentados; los buzones se ubicarán junto a las bocas de metro del Ayuntamiento, de Los Burros, de la Plaza de Solobarria, de la calle Valencia y en la Plaza Hernán Cortés de San Miguel.

c) Se instalarán carpas informativas, en las que se podrá participar, en Arizgoiti, en los Burros, en la Plaza Solobarria, en la Plaza Hernán Cortés y en la Plaza de la Iglesia

d) Dinamizatzaileak joango dira Batxilergoko ikastetxeetara, ikasleak parte hartzera animatzera.

e) ados.basauri.eus webgunetik ere parte hartu ahal izango da era, ziurtagiri digitalaren beharrik gabe. Webgunean prozesuari lotutako guztiari buruzko informazioa emango da.

**SEIGARRENA**.- 1. FASEAn aurkeztutako proposamenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, onartuak izateko:

a) Udalaren eskumeneko arloei lotutakoak, teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak direnak.

b) lurralde-oreka lehenetsi behar dute, eta interes orokorra, partikularraren gainetik.

c) 50.000 €-ko kostua ez gainditzea proposamen bakoitzeko.

d) Eremu pribatuei ez eragitea.

e) Planifikatuta edo exekuzioan ez egotea.

f) Ahal den neurrian, etorkizuneko gastu ekonomikoa ez eragitea.

**ZAZPIGARRENA**.- Proposamenak aurkeztea.

f) Basauriarrek parte hartzea errazteko, inprimaki bat diseinatuko da, eta, 1. FASEAn, herritarrei etxera bidaliko zaie. Inprimaki horrek jasoko ditu herritarraren nortasun-datuak (Erroldan daudenekin erkatu ahal izateko) eta harremanetarako datuak (Udalak harremanetan jarri behar badu, proposamenaren gainean).

g) Herritar bakoitzak zenbait proposamen aurkeztu ahalko

de Ariz.

d) Personal dinamizador se acercará a los centros de Bachillerato para facilitar e impulsar la participación del público más joven.

e) También se podrá participar en el sitio web ados.basauri.eus, sin necesidad de certificado digital. En dicho sitio se da cumplida información de todo lo relacionado con el proceso participativo.

**SEXTO**.- Las propuestas presentadas en la FASE 1 deben cumplir los siguientes requisitos para ser aceptadas:

a) Relacionadas con ámbitos de competencia municipal, técnica y económicamente viables.

b) Primar el interés general frente al particular y el equilibrio territorial del municipio.

c) No superar un coste de 50.000 € por propuesta.

d) No afectar a espacios privados.

e) No encontrarse planificadas o en ejecución.

f) En la medida de lo posible, no comprometer gasto económico futuro.

**SÉPTIMO**.- Presentación de propuestas.

f) Para facilitar la participación ciudadana se diseñará un formulario que en la fase 1 se buzoneará en los domicilios. El formulario incluirá los datos de identificación y de contacto de la persona, para contraste con el padrón de habitantes y para que el ayuntamiento pueda contactar en relación a la propuesta.

g) Una misma persona podrá presentar varias propuestas, pudiendo usar distintas vías, cumplimentando un formulario por cada propuesta.

ditu, zenbait bidetatik. Hori bai: proposamen bakoitzerako inprimaki bat bete beharko da.

**ZORTZIGARRENA**.- Proposamenak kudeatzea.

a) Behin proposamen guztiak jasota, egileen nortasuna egiaztatuko da, proposamenak baliozkoak direla ziurtatzeko.

b) Idazkari teknikoak formalki baliozkoak diren proposamenen zerrenda prestatuko du, banan-banan identifikatuko ditu, eta dagokien udal-arlora helaraziko ditu proposamenak, azter ditzaten.

c) Arloetan proposamenak aztertuko dituzte, proposamenak ekonomikoki, juridikoki eta teknikoki bideragarriak ote diren aztertuko dute, eta ondoriozko proposamenetatik sortutako proiektuak proposatuko dituzte (proiektu batek hainbat proposamen bil ditzake).

d) Arlo bakoitzak banan-banan lehenetsiko ditu dagozkion proiektuak, eta barneko lan-taldeak bozkatutako proiektuen zerrenda berretsiko du, arlo bakoitzean lehenetsitakoen artean.

e) Jarduteko eremu hauekin lotura duten proiektuei emango zaie lehentasuna: Gizartea, Gazteak, Adinekoak, Kultura-Hezkuntza, Mugikortasuna-Irisgarritasuna, Aktibazio ekonomikoa; Obra txikiak egitea edo mantentze-lanak indartzea behar ez dituzten proposamenak; 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuei hobekien atxikitzen zaizkionak; zehaztutako baldintzak hein handienean betetzen dituztenak.

f) Arloek bozkatzen diren

**OCTAVO**.- Explotación de las propuestas.

a) Una vez recogidas todas las propuestas, se procede a confirmar la identidad de las personas para comprobar validez de las propuestas.

b) La Secretaría técnica elaborará listado de las propuestas formalmente válidas, las identificará individualmente y dará traslado a las correspondientes áreas municipales las propuestas para su estudio.

c) Las áreas estudiarán las propuestas, analizarán su viabilidad económica, jurídica y técnica y propondrán los proyectos que se derivan de las propuestas resultantes (un proyecto puede comprender varias propuestas).

d) Cada área priorizará sus proyectos individualmente y el grupo interno de trabajo consolida el listado de proyectos que se someten a votación con los mejor priorizados en cada área.

e) Se priorizarán proyectos relacionadas con los siguientes ámbitos de actuación: Social, Juventud, Personas mayores, Cultural-Educativo, Movilidad-Accesibilidad, Activación económica; los que no supongan la realización de pequeñas obras o de refuerzo de labores de mantenimiento; los que mejor se alinean con los Objetivos de Desarrollo Sostenible de la Agenda 2030; los que cumplan en mayor grado los requisitos establecidos.

f) Las áreas elaborarán la solución técnica y la valoración económica de las propuestas

proposamenen soluzio teknikoa eta balorazio ekonomikoa egingo dituzte. Proiektatutako soluzio teknikoak hasierako proposamena aldatzea eta hobetzea ekar dezake, dela irismenean, dela kokapenean. Irismenean hobetuz gero edo hainbat proposamen proiektu berean bilduz gero, gerta daiteke kostua proposamenetarako mugatzat finkatutakoaren gainetik handitzea.

g) Proposamen guztien zerrenda argitaratuko da, adieraziz zeintzuk izan diren baztertuak, zeintzuk onartuak, eta zeintzuk bozkatuko diren. Onartu ez direnen kasuan, baztertzeko arrazoia ere adierazi beharko da (zeina aurretiaz ezarritako zioetako bat izan beharko baita).

**BEDERATZIGARRENA**.- Bozkatzea.

a) Bozkatuko diren proposamenen informazioa jasoko duen inprimaki bat diseinatuko da. Herritarrek inprimaki hori bete, eta horretarako jarriko diren postontzietan utzi beharko dute.

b) Proposamenez gain, inprimakiak jasoko ditu herritarraren nortasun-datuak (Biztanleen Erroldako datuekin erkatzeko) eta bozkan hautatu beharreko proposamen kopuruari buruzko jarraibideak.

c) Ez dira onartuko inprimaki ofiziala ez den beste baten bidez emandako botoak.

d) ados.basauri.eus webgunetik ere bozkatu ahalko da, ziurtagiri digitalaren beharrik gabe.

e) Herritar bakoitzak behin baino ezingo du bozkatu.

f) Boto guztiak jaso eta gero, herritarren nortasuna egiaztatuko da, botoak baliozkoak direla ziurtatzeko.

que se someten a votación. La solución técnica proyectada puede suponer la modificación y mejora de la propuesta original en alcance o ubicación. La mejora en el alcance o la agrupación de diversas propuestas en el mismo proyecto puede derivar en el aumento del coste más allá del establecido como límite para las propuestas.

g) Se publicará el listado de las propuestas con indicación de las que son rechazadas, aceptadas, y las que finalmente son sometidas a votación. Se incluye la causa tasada de la no aceptación de la propuesta.

**NOVENO**.- Votación.

a) Se diseñará un formulario con la información de las propuestas que se someten a votación, que una vez cumplimentado se podrá depositar en las urnas colocadas para la ocasión.

b) En el formulario figurarán además de las propuestas, los datos de identificación de la persona, para contraste con el padrón de habitantes, y las instrucciones sobre el número de propuestas a elegir en la votación.

c) No se admiten votos con otro formulario que no sea el formulario oficial.

d) También se podrá votar en el sitio web ados.basauri.eus sin necesidad de certificado digital.

e) Cada persona sólo podrá votar una única vez.

f) Una vez recogidos todos los votos se procede a confirmar la identidad de las personas para comprobar validez de los votos.

Kareaga Goikoa 52, 48970 Basauri 944666342 www.basauri.eus berrikuntza@basauri.eus

**HAMARGARRENA.-** Proposamenak aurrekontuan txertatzea eta kontu ematea.

g) Udalak bozkatutako proiektuen zerrenda ordenatua argitaratuko du, eta bertako proposamenak 2025ko aurrekontuan txertatuz joango dira, ezarritako kreditu osoa agortu arte.

h) Udalak aukera izango du boto gutxiago jaso dituzten, baina kostu txikiagoa duten proiektuak zerrendan aurreratzeko, ezarritako kreditu osoa agortzeko.

i) Prozesuaren bilakaerari buruzko txostena egin eta argitaratuko da.

j) Hautatutako proiektuen exekuzio-egoeraren berri ere emango da, aldiro.

**DÉCIMO.-** Incorporación al presupuesto y rendición de cuentas.

g) El ayuntamiento publica el listado ordenado de proyectos votados, para proceder con su incorporación al presupuesto del ejercicio 2025 hasta agotar el crédito total establecido.

h) El ayuntamiento puede avanzar en el listado ordenado, para su incorporación, proyectos con menos votos pero de coste inferior en aras de agotar el crédito total establecido.

i) Se elaborará y publicará el informe de devolución del proceso.

j) Se publicará periódicamente el estado de ejecución de los proyectos seleccionados.

**HAMAIKA.-** Prozesuak une oro bermatuko du parte-hartzaileen konfidentzialtasuna, eta EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 ERREGELAMENDUAn ezarritakoa beteko du.

**UNDÉCIMO.-** El proceso garantizará en todo momento la confidencialidad de las personas participantes y se ajustará a lo establecido en el REGLAMENTO 2016/679 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 27 de abril de 2016.

Proposamen horrekin ados egonda, eta Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluak emandako ahalmenak baliatuta, honako hau

**XEDATZEN DUT:**

Goian jasotako ebazpen-proposamena onestea eta bere horretan Ebazpen bihurtzea.

Encontrándola conforme y en ejercicio de las facultades establecidas en el artículo 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril reguladora de las Bases de Régimen Local,

**DISPONGO:**

Aprobar la propuesta de resolución transcrita, elevándola a Resolución, en sus propios términos.

*Izenpea eskuordetzan emanda (2023/07/27ko*

*Por delegación de firma según Decreto de*

*Alkatetzaren 2899 Dekretua)* *Alcaldía nº 2899 de 27/07/2023.*

Basauri, 2024ko irailaren 16(e)an / 16 de septiembre de 2024
GOBERNANTZA PUBLIKOKO ARLOKO ORDEZKARIA / DELEGADA DE ÁREA DE GOBERNANZA PÚBLICA
BERTA MONTES BELTRAN